

HONDARRIBIA

Montserrat-eko
Amabirjiña-ri
buruzko
erreportaia



Martxoak 8:
Emakume
Langilearen
Eguna





AURKIBIDEA

Azaleko Argazkia: Inaxio Nogueras

- 2 - BOTIKAK
- 3 - HERRI GIROA
- 11- ELKARRIZKETA
- 15- PUBLIZITATEA
- 16- ERREPORTAIA
- 19- TXISTE GRAFIKOEN LEHIAKETA
- 20- BORDARI-SATARKA LEHIAKETA
- 25- GAZTE INFORMAZIO BULEGOA
- 26- DENBORAPASA
- 27- TELEFONOAK
- 28- GANBARAKO KUTXA MIATZEN
- 29- LEHIAKETA
- 30- HOROSKOPOA
- 31- DEMOGRAFIA

Argitaratzailea
Euskara Azpibatzerdea
eta **Erredakzioa:**

Inaxio Nogeras

Publizitatea:

Beñat Muñoz

Kolaboratzaileak:

Ainara Elizondo

Haitz Arzak

Estibalitz de la Fuente

Inprimategia, Fotokonposizioa eta Maketazioa:

Ondarribi Inprimategia

Minascroeta, 21

Tel.: 943 642 122 - Fax: 943 641 157

E-mail: ondarribi@clientes.euskaltel.es

20280 HONDARRIBIA

Legezko gordailua: S.S. 122/86

HONDARRIBIA ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien ondorioak.

OHARRAK

TXANDAKO BOTIKAK MARTXOAN

- 7 ALMAJANO (Mendelu Auzoa) 943 64 00 68
- 14 ALAMEDA (Damarri) 943 64 57 98
- 19 ALMAJANO (Mendelu Auzoa) 943 64 00 68
- 21 ERAUSKIN (San Pedro, 28) 943 64 10 18
- 28 IRAOLA (San Pedro, 5) 943 64 10 27

TXANDAKO OKINDEGIAK MARTXOAN

- 7 GARMENDIA (Portuan) 943 64 11 36
- 14 MARTINEZ (Kale Nagusia) 943 64 12 12
- 19 ARRATIBEL (Mendelu Auzoa) 943 64 19 75
- 21 GARMENDIA (Portuan) 943 64 11 36
- 28 MARTINEZ (Kale Nagusia) 943 64 12 12

EUSKAL MEZAK

Astegunetan arratsaldeko 7etan Portuko Elizan
Larunbatetan arratsaldeko 7'30tan Portuko Elizan

IGANDETAN

- Goizeko 8'30etan Betherram-en
- Goizeko 9etan Amuten
- Goizeko 9'30tan Guadalupen
- Goizeko 11etan Portuko Elizan

Jasokunde eta Sagarrondoko Andre Mariaren
Parrokia: Tel. 943 642165



HERRI GIROA



HONDARRIBIA/99



2000.03.06

MARTXOAREN 6AN, JAIO BERRIEN OMENEKO ZUHAITZ LANDATZEA



Urtero bezala aurten ere iaz jaiotako haur bakoitzagatik zuhaitz bat landatuko da Jaizkibel mendian. Martxoa aldera izan ohi da, eta aurtengoan martxoko lehen larunbatean izango da, Oiamungo gainean hain zuzen ere.

Duela ez asko sortu zen ekimen hau, eta lasai esan daiteke jendearen oso gustokoa dela. Gehienbat jaiο gurasoentzat, ilusio handia egiten baitie euren seme edo alabaren izena ematea zuhaitz bati.



Gurasoen gustoko ekitaldia izaten da zuhaitz landatzearena.

Hala ere, ekimen honek badu beste helburu bat. Jaizkibel mendiaren itxura aldatzea ahal den neurrian. Gogoratuko duzuen bezala, iaz, garai hauetan mendiak su hartu zuen, edo su eman zioten, eta lur hedadura handia

erre egin zen. Era hontako ekintzek lagundu besterik ez dute egiten mendiaren itxura hobetzen, beraz, guztiz ongi etorriak dira. Bide batez, urtetik urtera haur kopurua haunditzen bada, hainbat eta hobe.

HEMENDIK AURRERA "HONDARRIBIA" ALDIZKARIA ZURE ETXEAN DOHAINIK JASO NAHI BADUZU, BETE EZAZU HARPIDETZA-TXARTEL HAU ETA ERAMAN UDALETXEKO EUSKARA ZERBITZURA.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak.....

Helbidea.....

Herria.....

ARRANTZALEEN OPORRAK AMAITU DIRA DAGOENEKO

Martxoaren lehen egunean hasi zen arrantzaren denboraldia. Neguaren amaiera hurbil ikusteaz gain, arrantzaleek euren oporrak ere bukatu direla ikusten dute. Neguko hilabeteetan etxean egon behar izaten dute, itsasoaren egoerak ez baitu inolako harrokeririk egiten uzten.

Arrantzale asko eta askori oso luzeak egiten zaizkie neguko hilabete hauek, eta desiatzen egoten dira antxoaren denboraldia noiz hasiko, lehorrean egoteaz aspertu egiten baita itsasoa maite duen edonor. Hori dela eta desiatzen daude berriz ere lanean hasteko.

Aurtengo denboraldiari begira, pasatakoaren emaitzak hobetzea espero da, eta duela bi urtekoa berdintzea edota hobetzea espero da. Gogoak behintzat ez dira faltako, eta suertea eta itsasoak laguntzea da geratzen den bakarra.


Untzi eta arrantzale kopuruei begira, ezin esan aldaketa sakonik egon denik. Orotara, 49 untxi dauzkagun Hondarribian. Desberdinketa bat eginez, lehenik legatzariak aurkituko genituzke. Hauek 19 dira, eta batura eginez, denek 90 arrantzale osatzen dituzte. Karrerako untxiak aldiz 30 dira, eta arrantzale kopurua askoz handiagoa da hemen: 387. Denetara beraz, 477 arrantzale daude Hondarribian, izena emana daukatenak behintzat.

«NUEVO REINA MARÍA» ARRANTZALE GEHIEN DITUENA

Untzi bakoitzak duen arrantzale kopuruari begiratuta, lehen tokian «Nuevo Reina María» dagoela ikus daiteke. 17 arrantzale ditu, eta bat gutxiago dutenen artean begiratuta, «Arrantzale», «Nuestra Señora del Manzano», «Bidasoa», «Gure Cita», «Izar Zuri», eta «Madre Guadalupe» daude.



Martxoaren lehen egunean hasi zen arrantzaren denboraldia.



Irudi hau ikusteko hilabete batzuk igaro beharko dira.

Karrerako untzien artean arrantzale gutxien dituztenak «San Francisco Berria», «Santa Gema Quinto», «Xon Cinco», «Madre de Lourdes» eta «Matutina Berria» daude.

Legatzariak diren untzien artean, normala den bezala arrantzale kopurua mugatuagoa da, eta gehienez jota 6 daude barku batean. Hor dauzkagu adibidez «Arantzazuko Ama», «Gure Ama Martina», «Mariñel», «Ondartz Ederra», «Zilarri», «Ainara», «Amatxo», «Zerupe», «Berriz Gerardo», «Esponda Anaiak»...

Iazko denboraldia ez zen oso ona izan. Hasi berria dagoen denboraldi honetan 1997ko emaitzak berdintzea edo hobetzea espero da. Ezin ahaztu arrantza dela Hondarrribian dagoen sarrera ekonomiko nagusiena. Ez dira bakarrik arrantzaleak kontutan hartu behar. Ezin ahaztu arrantzale hauek duten familia. Kopurua eta familia kontutan hartuta, arrantzak Hondarrribian duen zeresan handia nabaritu dezake edonork.

Arrantza berak zeharka sortzen dituen lanpostuak ere hor daude. Kofradiako langileak 15 dira, Esteban Olaizola buru dutelarik. Zer esanik ez sare konpontzaileek osatzen duten taldea. Dauzkagun azken datuak oker ez badaude, 19-20 dira horretara dedikatzen direnak.

Bentan salmenta eramaten dutenak eta kargatzera dedikatzen direnak batuta, errez ohartuko gara zer nolako garrantzia daukan arrantzak gure herrian, bai sektore ekonomiko bezala, eta baita herri bertako erlazioen barnean ere.

Hasi berria den denboradiak arrakasta besterik ez izatea da aldizkari honetatik espero duguna, eta ia azaroko alea egiten dugunean berri pozgarriak besterik ez ditugun agertu behar. Denen onerako izango da eta.

MARIÑEL

BURDINDEGIA - FERRETERIA

MENAJE - INDUSTRIAL
TORNILLERIA INOX.
ELEKTRIZITATEA
GILTZEN KOPIAK

Bernal Etxepare, 12 - Tel.: 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

ENARA INMOBILIARIA



San Pedro, 4 - behea - Tel.: 943 64 39 72
HONDARRIBIA - Tel. Y Fax 943 64 54 38

eukeni optika

- * BEGIEI AZTERKETA
- * KONTAKTUZKO LENTEAK
- * BEGIEI ENTRENAMENDUA
- * GRADUAZIOA, KONTROLA ETA BERRIKUSKETA
- * PRESIO INTRAOKULARREN AZTERKETA

San Pedro, 57 - Tel.: 943 64 38 05

BUTROI PASEALEKUA HOBETZEKO ZENBAIT ASTE BEHARKO DIRA

Nahiz eta duela ez hilabete asko Butroi Pasealekuak eraldaketa lanak jasan zituen, berriz konponketa lanak jasaten ari da. Nahiz eta gure betiko paseo eta ibilaldietarako oztopo izan, badauzka ere bere alderdi positiboak ekintza honek. Hondatuta dauzkan baldosapeak berritzeaz gain, garai batean zeukan itxurara bueltatzea espero da. Hortaz gain, guri zaigu ezta pezeta bat kostatuko obra hau egitea, *Kostetako Zuzendaritza Orokorra* (Dirección General de Costas) izango baita diru osoa jarriko duena.



Baldosen azpian dagoen materiala (hornigoia) oso egoera txarrean dago. Baldosa hauek aldatu egingo dira, eta bide batez Butroi Pasealekuak zeukan itxura berreskuratzeko asmoa dago. Memoria ona daukatenek gogoratuko dute zer nolako materiala zegoen orduko zoruan. Gaur egun materiale hori erabiltzea desegokia eta zikiña denez, lurra harrizkoa egitea pentsatu da. Hortaz gain, zuhaitzez osatutako bi lerro egingo dira Diego de Butron zenari dedikatutako pasealekuan.

Lan guztiaren kostu osoa 118'5 milioi pezetetako da. Eta aipatutako Espainiako erakundeak izango da diru

guztia jarriko duena. Erakundeak bere begiak gure herrian fijatzeko arazoia konstantzia dela esan daiteke, urte t' erdi iraun duten gestioak egin baitira hori horrela izan dadin. Gainera, hiru urtetan Kostetako Zuzendaritza Orokorra Hondarribian egiten duen hirugarren ekimera da.

Lehena pasealeku berberaren zuzentze lanak izan ziren, eta bigarrena ordea, Bidasoa Pasealekuaren handitze eta hobetze prozesua. Jarrai dezatela beraz euren begiak Hondarribian fijatzen eta dirua eskaintzen lan edo obrak aurrera eraman ahal izateko.

Hawaii

HAWAIIen dena da berezia

San Pedro kalea, 12 - Tel: 943 64 20 76
Santago kalea, 2/g - Zukaga, 2/g - Tel: 943 64 17 58
Rebellin, kalea, 3 - Tel: 943 64 48 00
20280 HONDARRIBIA

Arroka - Berri

ERRETEGIA



Faroco Bidea
Tel.: 943 64 27 12
20280 HONDARRIBIA

JON ALZAGA

URDAI-AZPIKOAK
HESTEKIAK
GAZTAK
FOIES
EDARIAK

San Pedro Kalea, 25 - Tel.: 943 64 44 70
20280 HONDARRIBIA



SAN KRISTOBAL-EKO LANAK BIGARREN FASEAN SARTU DIRA

Argazkia: J. G. / A. G. / B. G. / C. G. / D. G. / E. G. / F. G. / G. G. / H. G. / I. G. / J. G. / K. G. / L. G. / M. G. / N. G. / O. G. / P. G. / Q. G. / R. G. / S. G. / T. G. / U. G. / V. G. / W. G. / X. G. / Y. G. / Z. G.



Aste Santurako lanak amaitzea espero da.

Duela hilabete batzuk hasi zen San Kristobal-eko biribilguneko lanak bigarren fasera iritxi dira jadanik. Pasatako otsailaren 16an hasi zen fase berri hau, eta haseratik esan zen bezala, Aste Santuko oporrak heldu aurretik amaitzea espero da.

Eraikuntza lanen haseran esan zen bezala, konplikazio anitz erakusten zuen obra bat zen, baina denok jasotako ustea gauzak uste baino hobeto joan direla da. Jendeak erakutsi duen pazientzia eta ulerkuntza maila handiak zeresan handia izan du honetan. Hori dela eta, orain, bigarren aldi honetan ulerkuntza maila berbera eskatzen zaio, eta ahal den neurrian Udaltzaingotik igorritako aholkuak jarraitzea.

Oraingo honetan trafikorako ireki den kalea Sabino Arana da, baina Irunerako norabidean soilik. Aldiz, itxi

gingo diren kaleak Roteta Jatetxetik San Kristobal biribilgunera dihoan zatia da, sarrerako norabidean.

Alde Zaharretik Portura jaisteko, egokiena Javier Ugarte kalea hartu, Sabin Arana, Zuberoa kalea eta hortik Bidasoa kalera sartzea da. Bien bitartean, Zezen Plazako bidegurutzetik Portura, Santiago kalean bizi direnak eta zamaketa lanak egin behar dituztenak bakarrik sartuko dira. Hauen irteera, alderantziz egingo da. Esan baita Portu Auzoan bizi direnak, zuloaga kaletik Bernat Etxepare eta hortik Sabin Arana kaleetan barrera irtingo direla.


Hain garrantzitsuak diren lan hauek orain arte bezala jarraitzea nahi badugu, aholku hauek jarraitzea ezinbestekoa izango zaigu. Denon esku dagoen zerbait da.

SUSTO GALANTA MENDELUN ETXE BATEN ERORKETA DELA ETA

Otsailaren 19an izan zen, eta ziuraski gaur ere izu aurpegia izango dute bertan bizi diren pertsonak. Mendelun izan zen, eta oso larria izan zitekeena azkenean ez zen hainbestearaino iritsi, ez behintzat pertsonari dagokionez. Ez dute gauza berbera esango agian etxean bizi zirenek, ezer gabe geratu baitira.

Tamaina hontako hondamendi bat gertatzen denean, errepideak moztu behar izaten dira, gutxienik beste hiritarren osasuna salbu mantentzeko bada behintzat. Hori dela eta, errepidean auto ilara oso handiak gertatu ziren. Hori izan zen erorketa gertatu zenetik arratsalde osoan Mendeluko errepidearen inguruetan ikusi izan zena.

Erorketa goizeko hamar t'erdia aldera izan zen. Berehala iritsi ziren bertara Suhiltzaileak, D.Y.A-ko kideak eta baita Udaletxeko zenbait pertsona ere, Alkatea eta baita Gizarte Zerbitzuko zenbait kide ere, etxe bertako edo auzoko bizilagunek inongo laguntzarik behar bazuten.



Egoera honetan geratu zen Mendelu Kaleko 34 zenbakia.

Etterik gabe geratu diren pertsonak momentuan hotel batean geratu dira. Bien bitartean etxearen seguruarekin elkarrizketak mantentzen ari dira, euren egoerak ezin baitu luzaroan horrela jarraitu. Gogoratu behar da, etxea erori zenean, atzean zeukan.



Etxearen egitura oso zaharra zen.



BIGARREN ARTE IKASTAROAK MAIATZA ETA EKAINEAN IZANGO DIRA

Bigarren urtez jarraian, Hondarribiko Udalak hamar arte beka emateko deialdia egin du. Beka horiek eskuratzeko arte plastikoetako edozein profesional aurkez daiteke, inolako adin edo nazionalitate mugarik gabe. Ez da zergatik euskalduna edo espainiarra bakarria izan behar; europear edota amerikar batek ere partehartzeko eskubide berbera dauka.

Hala ere, zenbait baldintza betetzea ezinbestekoa da. Beka eta ikastaroen iraupena maiatzaren 1etik hasita ekainaren 15era bitarte iraungo da, eta bekadunak garai horretan Hondarribian bizi beharko du. Hilabete t' erdi horretan, ostatua eta lantokiaz bekadunak ez du arduratu beharrik, hori antolatzaileen betebeharrak bat baita. Aldiz, bidai gastuak eta materialak artistak lortu beharko ditu. Aipatu behar da ere, eskatzaileak egokitatzat jotzen duten

bere lanari buruzko dokumentazioa bidali beharko dutela, eta bideo zinta zein diapositibak ezingo direla bidali.

Beka hauen jabe izan nahi bada, eskaerak Bidasoa Turismora bidali behar dira, martxoaren 20^a heldu aurretik, 1999ko Arte Ikastarorako eskaerak direla zehaztuz. Argibide gehiago eduki nahi bada, 943 645458 telefonora dei daiteke, edota 943 645466 fax zenbakira zuzendu.

Bigarren urtez antolatzen den ekimen honek 4 milioi pezetetako aurrekontua dauka. Ikastaro hauetarako Asistentzia Batzorde bat eratu da, Maia Agiriano, Edorta Kortadi, Alfonso Albacete, Juan Manuel Bonet, Xanti Eraso eta Jose Luis Gallego-k osatuta. Batzorde honen lana ez da didaktikoa izango, eta aholkularitzaz eta jarraipenaz arduratuko da.

HERRIKO HISTORIARI BURUZKO IKERKUNTZA BEKAREN OINARRIAK EZAGUTU DIRA

Jadanik tradizio bihurtzen ari den ekimen baten aurrean gaude orain. Hondarribiko historiari buruzko ikerkuntzarako bekei buruz ari gara. Badira urte batzuk beka hauek zabaldu zirenetik, eta bere helburua argia da: historia arloko ikerkuntzarako ohitura suspertzea eta gure herriari buruzko azterketak bultzatzea.

Baina beka hauetara ez da hain erreza aurkeztea. Oinarrizko oinarriak zabaldu dira, eta horren berri ematera gatoz. Bekara aurkezten direnek, geroago egingo duten ikerkuntza proiektuaren txosten-laburpen bat aurkeztu behar dute aurretik, bertan azaldu beharko dutelarik zeintzuk diran proiektuaren oinarriko nondik-norakoak, metodologiak, iturburuak eta lana zein hizkuntzatan egingo duten.

Hortaz gain, ikasketa titulazioa eta eduki ditzazkeen merezimenduak ere aipa ditzazke historialariak. Eskatzaile beraren lan egoera ziurtatzen duen agiria aurkeztea ere ezinbestekoa izango da. Eskaera hauek apirilaren 12^a aurretik egin beharko dira Udaleko Artxiboan.

Hurrengo hilabeteetan egingo den lana 2000 urteko maiatzaren 30ean aurkeztuko da. Baina hori geroagoko gauza bat da, beka nori eman zaion jakin eta gerokoa. Beka 700.000 pezetetako izango da, eta euskaraz eginez gero beste ehun mila pezeta gehituko dira, Udalean euskara zerbitzua normalizatzeko dauden Udalen Ordenantzak jarraituz.

MARTXOAREN 8: EMAKUME LANGILEAREN EGUNA

Martxoaren zortzigarren eguna «Emakume Langilearen Eguna» dela guztiok badakigu. Baina egun hori zer dela eta ospatzen den dakitenak zenbat diren kontatzen hasiko bagina, oso gutxi liratekela ohartuko ginateke. Azken urteotako askak, baina ezta gutxiago ere, mende haseratik datorren ohitura bat da. Hala eta guztiz ere, jai egun hau ospatzeko dauden arazoak ez daude oso argi, eta nahiz eta egun guztiz finkatuta dagoen, ez da oso ziurra beronen arazoia edo jatorria finkatzea.

Erizpide batzuen arabera, mende haseran Chicago-n (Estatu Batuetan) zenbait emakumek bere lantegiari su eman zioten gizonen soldata berbera eskatu asmoz. Bien arteko lan egoerak hain ziren desberdinak, neurri latz hori hartu behar izan zutela.

Hala ere, Bonnie S. Anderson eta Judith P. Zinsler-ek bere «Historia de las Mujeres: una historia propia» liburuaren lehen liburukian dioten bezala, 1908ko martxoaren 8an, jantzieta dedikatzen ziren zenbait lantegietako ehundaka langile emakume kalera irten ziren New York-en, botu eskubidea eta sindikatu indartsuago bat eskatuz. Bi urte geroago, Clara Zetkin deituriko emakumeak, Alemaniako Emakumeen Internazional Sozialistaren burua zenak, Internazional Sozialista bera komentatu zuen egun hori Emakume Langilearen Eguna bezala ezar zezan. Emakumeek eginiko eskarien artean, hiru ziren nagusiak: sufragio orokorra, soldataren berdintasuna eta amatasunaren segurua ziurtatzea.

Horrela izan zen, eta urte hortatik 1914 arte egun hori Emakume Langilearen eguna bezala ospatu zen. Urte hortako ekainaren 28an Francisco Fernando Artxidukea Sarajevo-n erahiltzen du Princip deituriko ikasle bosniakoak, eta Europa zein mundu guztia hankaz gora



Clara Zetkin-ek (ezkerrean), lan handia egin zuen emakumeen eskubideen hastapenetan.

geratuko da. Gauza berbera gertatuko zaio emakumeari eta defendatzen dituen eskubideei. Orain garrantzitsuenak ez da sexuen arteko diferentziak konpontzea, baizik eta gerra. Hasera batean, gerra Europan zentratzen da, eta emakumeen eskubideen gaia gehiago jorratzen da Estatu Batuetan. Baina, 1917ko otsailaren 3an Estatu Batuetan gerra deklaratu diote Alemaniari, eta orduan ezta hori ere.

Gero, urteak eta hamarkadak igaro dira. Gari haiekin konparatuz gauzak asko aldatu dira. Hala eta guztiz, alor honetan bizitzako beste guztietan bezala gertatzen da. Batzuk asko aldatu dela eta ari dela uste dute. Beste batzuk aldiz, nahiz eta aldaketa gertatu den, oraindik askoz gehiago eman behar dela esango dute. Denborak arazoia eman eta kendu egiten du, eta hementxe gertatuko da.

EMAKUMEAK GUADALUPEKO GOTORLEKUKO ESKOLA- LANTEGIAREN BURUAN

1997ko martxoaren 8
 1999ko martxoaren 8

Emakumea gizartean gero eta lanpostu hobeak lortzen ari dela esatea ez da azken orduko berri bat ematea. Denok ados gaude azken urte eta hamarkadetan egoera aldatu egin dela, eta duela zenbait urte emakume bat agintean edo zuzendari bezala ikusteak harridura sortuko zukeen. Gaur egun hori gainditu egin da, edo gainditze prozesuan dago, segun eta eta zein ikuspuntutik aztertzen dugun gaia. Horren adibide argia dugu Guadalupeko Gotorlekuan azken 14 hilabetetan funtzionamenduan dabilen eskola-tallerrean. Zuzendaritza orokorra bi emakumeren artean daramate, Amelia Sancho eta Izaskun Lekuona. Jerarkia moduko bat eginda, euren azpian formazio osagarriaz arduratzen diren Juncal Amunarriz eta Angela Bogajo leudeke. Administrazio lanetaz arduratzen dena Ana Isabel Cuena da. Gotorlekua hobetzeko lanetan ere neska ugari daude.

horretaz hitzegiteko. Elkarrizketa hau norbait egin behar zenez, une hartan Guadalupe lanean zebilen Amelia Sancho-ri egin genizkion galdera batzuk. Hala ere, alde aurretik garbi geratu dedila, lanean dauden emakume guztiak meritu berbera dutela (gizonak ez ditezela haserretu, mesedez).

Noiz hasi zineten lanean Gotorleku honetan?

Eskola taller bezala inaugurazio ofiziala 1997ko abenduaren 27an izan zen. Lanean egon izagur beranduago hasi ginen, gabonetako garai horiek igarotzen eta berehala. Proiektuak bi urteko iraupena du, eta beraz, 1999ko abenduan 28an denak bukatuta egon beharko du.

Zer dela eta eskola taller-a izena?

Beraiekin egon ginen gainean daukagun martxoaren 8^a ere nolabait kontutan hartuta. Emakume langilearen eskubideak aldarrikatzeko balio duen eguna bezala kontsideratzen da, eta zein hobe emakume hauek baino

Kontuan hartu behar da hau ez dela ekimen pribatuko eskola bat. Hemen, Irun eta Hondarribiko Udaletxeak egoteaz aparte, estatu mailako egitura bat dago, INEM hain zuzen ere. Berak egindako aportazioa



EROSLE
SUPERMERKATUA

Santiago kalea
HONDARRIBIA



Karmele
Jantzi Konponketa

Tel.: 943 64 50 64
Arreglos en prendas de:
Cuero • Ante • Punto • Tela
REFORMAS • ADAPTACIONES

Juan Laborda, 2 bajo
20280 Hondarribia
Alde Zaharra



LA HERMANDAD
UDALETEKOA

Zuloaga Kalea 7/g.
Telf. 943 64 27 88
HONDARRIBIA

oso garrantzitsua da. INEM-ek emandako dirua eta jarritako interesa egongo ez balitz, proiektu hau ez litzateke ezta jaio egingo ere. Asko zor diogu erakunde honi.

Zenbat emakume zaudete zuzendaritza postuetan?

Zuzendari bezela Izaskun Lekuona eta ni neu gaude. Formazio eta teknikaren alorra guk daramagu. Gero, formazio osagarria dei dezakegun alorraren buruan beste bi emakume daude, Juncal Amunarriz eta Angela Bagajo. Administrazioaren arduradun Ana Isabel Cuena da. Hortaz gain, beste tailerreko lau monitorea daude, eta horietatik bat emakumea da, Elena Isasi hain zuzen ere. Belardi eta basoko baliabideez arduratzen dena da.

Lanean ere neska asko al daude?

Egia esan behar bada, 50 gazte lanean daudela kontutan hartuta, gehiengoa gizonezkoek osatzen dutala argi dago. Hala ere, neska batzuk badaude, eta gehienbat oraintxe aipatu dudan alorrean, belardi

edo basoko baliabideetan.

Zer nolako ordutegia daukazute?

Goizeko zazpi t'erdietatik hasita, arratsaldeko hiri t'erdietara egoten gara. Hamar t'erdietan indarrak berreskuratzeko etenaldi bat egiten dugu, baina bestela ez dago etenik ordua iritxi arte.

Nola igotzen zarete Guadalupea egunero?


Herri honetan hain ezaguna den Ceberio-ren autobus batek eramaten gaitu egunero goizeko zazpiretan, Arratsaldeko hiru t'erdietan berriz ere hemen dago, eta 50 ikasleak jaitsi egiten ditu, batzuk herrira eta beste batzuk Irunera, berauetariko asko bertakoak baitira.

Gogorra egiten al da lana?

Bai, oso gogorra da. Kontutan hartu behar da altuera batean gaudela, eta gainera, izatez Gotorleku hau oso hotza da. Hezetasun handia dago, eta gaixotasunak harrapatzea ez da batere zaila.



Ana eta Amelia lanean Guadalupeko gotorlekuko bulegoan.



Gotorlekuko sarrerak bere itsura aldatu du orain.

Emakumearen egunari begira, zer pentsamendu dituzue?

Proiektu honen buruan emakume bi gaude. Nere ustez gauzak ongi egiten ari gara, eta horrek emakumeek postu garrantzitsuak okupa ditzaketela frogatzen du. Gainera, proiektu hau jendeak uste baina garrantzitsuagoa da.

Zer dela eta da hain garrantzitsua?

Hemen lanean dabiltzan gazte hauek oso lan ona egiten ari dira. Bi urtez hemen lanean egongo dira, eta horrek gerora begira zeresan handia izan dezakeela uste dugu. Hemengo lana bukatzen dugunean, bakoitzak bere bizitzan oso baliagarria izango den esperientzia hartuko du, eta lan munduan murgiltzeko erretzasunak besterik ez dizkio emango.

Historia apur bat eginda, noizkoa da Gotorlekua?

Gotorlekuaren proiektua 1892 urtekoa da. Proiektu horren kopiak ere existitzen dira. Gotorlekua gero 1900 urtean amaitzen da, eta datu bezala, esan, orduko «Ministerio de la Guerra»-k onartu zuela, edota gainean egon zela. Hortik aurrera, «Fuerte»-ak istorio asko jasan ditu, eta gaur egun, guk historia horren zati izan nahi dugu, gerora begira gehienbat.

Emakumearen egunari begira, zer pentsamendu dituzue?

ARRETXE



salmenta eta konponketa

RENERIA
C/ Larraza, 1 - Tel. 943 34 01 82
DONOSTIA
C/ Labaeta, 54 - Tel. 943 28 65 72
HONDARRIBIA
C/ J. Alonso, 5 - Tel. 943 64 27 77

**VIDEO CLUB
HONDARRIBIA**



FOTOCOPIAS

Bernat Etxepare, 2
Teléfono 943 64 34 92
20280 HONDARRIBIA



HONTZA
PUB

GIZONEZKOENTZAKO
ILEAPAINDEGIA
TIRLIA

Beñat Etxepare, 18
Teléfono 943 64 58 30
20280 HONDARRIBIA

EDERKI
JANTZIAK

San Pedro, 4 - Tel: 943 64 03 50
20280 HONDARRIBIA

Joanetik joaki,
Eldutik elduki,
eta jantzi polita eta
ederretik Ederki.

15 PUBLIZITATEA HONDARRIBIA/99



ENDANEA

LORE ETA LANDARE
MINTEGIA

ENDANEA Baserría - Tel. 943 64 17 10 - 20280 HONDARRIBIA

Albistur
eta
Arocena

HARATEGIA
URDAITEGIA

Zuloaga kalea
Tñoak.: 943 64 18 60 - 943 64 13 31
20280 HONDARRIBIA

KAFETEGIA



GOZOTEGIA

San Pedro, 10
Tel.: 943 64 10 47
20280 HONDARRIBIA

ILEAPAINDEGI
MIXTOA
ESTETIKA



A. Guezala

SOKOA Merkataldetgia
Tel.: 943 64 44 07
20280HONDARRIBIA



Txingudi
AUTOESKOLA

Matxin de Arzu, 10 bajo,
Teléf.: 943 64 56 01
20280 HONDARRIBIA

MONTSERRAT-EKO AMABIRJIÑA, MAITASUNEZ GORDERIKO IRUDIA



Amabirjiña oso ondo zainduta dago baserrian.

Hondarribiar guztiontzat da ezaguna Montserrat-eko Amabirjiña. Nahiz eta herri honetan ezagunena Guadalupeko Amabirjiña izan, artikuluko honetan aipatzen dugunak historia ederra du, eta gure irakurle zaretan guztiok jakin beharrekoa gainera.

Kataluniako ugazabandre (patrona) denari ermita bat eskaini zitzaion duela hainbat urte gure herrian. Data zehatzik ez dago, baina jakin da 1589 urtean diru-bilketa bat egon zela Amabirjiña behar bezelako ermita batean egon zedin. Erreza da pentsatzea beraz, urte hortan dirua biltzea erabaki bazen, askoz aurretik existituko zela irudia gutxienez.

Florentino Portu zenak bere «*Hondarribia: Notas Históricas y Curiosidades*» liburuaren 725-727 orrialdeetan esaten duen bezala, ermita edo baseliza hau Jaizubiako auzoan kokatzen zen, eta «*Monserrat*»

deituriko baserriari atxekituta zegoen, «*Bachillerrenea*» baserriaren aurrez-aurre. Barneko azalera ia 40 metro karratukoa zen, 5'35x7'32 m2 hain zuzen ere.

Baseliza honen deskripzioa egiten digu F. Portu-k. Berak kontatzen digu nola elizatean, nitxo baten barruan harrizko irudi arraro bat ikusten zen. Ikerketen arabera Ez dirudi irudi hori baselizarena zenik, agian aurretik existitzen baitzen, edota norbaitek beste eliza batetik ekarritakoa bestela. Baseliza beraren barnean, aldaera horma-konka edota hornazina bat ikus zitekeen, eta bertan gordetzen zen gaur aipatzen dugun Montserrat-eko Amabirjiña. Aldetara, ezker zein eskuin, bi irudi igertzen ziren: San Jose-rena bat, eta Maria-rena bestea. Horretaz gain, aitortoki, elizei buruzko koadroak eta auzoko bizilagunek eginiko banku ugari zeuden.

Gaur egun, oraintxe aipatutako zerranda guzti hau auzoan dagoen «*Mediamborda*» baserrian gordetzen dira.

Umoresu eta gogo onez hartu gintuen bertan bizi den Rufina-k, eta berak erakutsi zigun materiale guztia, eta benetan harrituta geratu ginen, dena zein ongi zainduta dagoen ikustean. Debozio eta jainkozaletasun handia ikusi ahal izan genuen emakume honengan. Azken 20 urteotan bera izan da garai batean basilizan zegoen materiale guztia zaintzeaz arduratu dena.

Lehen aipatu bezala, egongela handi batean gordetzen da Amabirjiña, eta ezker eskuinean San Jose eta Maria ere kokatzen dira. Dena lore ederrez inguraturik dago. Gelaren beste alde batean, benetan polita den kaliza eta ornamentuak kokatzen dira. Euren ondoan, 130 urte inguru dituzten bi meza-liburu ikus daitezke. Konkretuki, bata 1860koa da, eta bestea 1880koa.

Atzeko gelan, beste hainbat materiale ikus daiteke. Garrantzitsuena, kareharritzko gurutze bat dugu. Alde batean Kristo ageri da, eta beste aldean ordea, Amabirjiña. Hortaz gain, lehen aipatutako egurrezko aitortoki polit bat, banku ugari, koadro gehiago... aurki ditzazkegu.

«Mediamborda» baserrian egon aurretik, materiale guzti hau «*Monserrat*» izeneko baserrian gordetzen zen. Baina dirudienez han traba egiten zutenez, beste baserri eder honetara ekarri zen, eta orduz geroztik bertan gordetzen da, Rufina delarik dena garbi eta ordenean mantentzen duena.



Baselizan zeuden bankuak eta harrizko gurutze eder bat gordetzen da baserrian.


JAIZUBIA ELKARTEA ETA AMABIRJIÑA EGUNA

Herri honetan hainbeste zeresan duen 1936 urtea heldu arte, Gerra Zibilaren hasi arte, abuztuaren 15ero erromeria eta jai ugari ospatzen ziren, Meza entzun ostean. Bertara, Jaizubia auzoko pertsonak eta gainontzeko auzoetakoak hurbiltzen ziren. Jaiegun handia izaten zen Amabirjiñaren egun hau Jaizubian. Urte hartatik aurrera gauzak aldatu egin ziren, eta soberan izango litzateke arrazioak zeintzuk diren esatea. Ordutik aurrera, zenbait

igandetan Mezak ospatzen ziren, eta jai egun hau alde batetara utzi izan da urte askotan.

Baina horrela heltzen gara 1980 urtera. Urte hortako Amabirjiña egunean, auzoko lagunek, «*Jaizubia Elkarte*a» behin sorrera ospatu asmoz, Monserrat-eko Amabirjiñaren omenezko jaialdiak antolatuta zituzten.

Hala ere gaur egun oraindik lehen aipatutako zerrenda guztia baserrian gordetzen da. Abuztuaren 15^a



Abuztuaren 15-ean urtero meza ospatzen da Jaizubia Elkarteak.


heltzen denean, Amabirjiña, kandelak eta mahaiaik atera egiten dira eta elkartean meza ospatzen dute inguruko baserritarek.

Udalak aurtengo bere Aurrekontuetan diru kopuru bat gorde du gara batean Monserrat-eko baseliza izan zena berriz ere eraikitzeko. Ziurrenik auzoko biztanleek asko eskertuko duten neurri bat da hau, horrela Amabirjiña behar duen tokian egotea lortuko baita. Hala ere, gaur egun zaintzen dena baina gehiago egitea zaila izango da. Bide batez, gure herriko historia zabalaren zati bat berreskuratzea lortuko da.

I. NOGERAS



«Mediamborda» baserrian bizi da Rufina, eta berak zaintzen du Amabirjiña.



Aurreko alean emandako hitzari jarraiki, beste txiste bat ekarri dizuegu oraingoan. Otsaileko zenbaki hontako txistea ere oso ederra da. Bere egilea Jaione Emazabel da eta «Mozkorraldia» du izena. Epaimahaia osatu zutenen artean oso harrera ona eduki zuen. Xehetasunak oso ongi zainduta zeudela esan zuten epaimahaiko kideek. Adibide bezala, haurra nola dagoen etzanda, paretan ikusten den ordua, gizon mozkorraren itxura... Zorionak egile gazteari. Datorren alean beste bat publikatuko dugu, sarituak izan diren eta ez diren arteko ahalik eta gehienak agertzeko asmoa dugu eta.

ARRAUN ELKARTEA GIMNASIOA

- AEROBIC/FITNESS
- MUSCULACION
- MASAJES
- GIMNASIA MANTENIMIENTO
- GIMNASIA REHABILITACION
- SAUNA GRATUITA

HERRIKO GIMNASIO EDERRENA!!

HONDARRIBIA ARRAUN ELKARTEA. ☎ 943 640161

FS

oto sistema

**ARGAZKIAK
ORDU BETEAN**

Itsasargi, 3 - Tel. 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

ALDARTE GALDUAK

Vita et natura creant hominem, postea crescit, tandem moritur. Persona non est misera, vita quae facit illam miseram est nocens».


Gizaki orok beti ikusi izan du erakargarri samina sortu ohi dion hori, baina nik alferrikako masokismoa gustuko ez dudala ez daukat zalantza izpirik ere. Elkarrekin maiz izaten ditugun elkarrizketa hauetan, askotan galdetu izan diot goiko horri nire jatorriaren berri (nahiz eta haren erantzunik oraindik jaso ez izan). Ez diot nire egoeraren errua berari leporatu nahi, baina neuk ere ez dut gustuko hainbeste nahigabe artean bizitzea.

Abuztuko arratsalde eguzkitsu batean ekarri ninduen zikoinak Paris aldetik gurasoenera. Lau orduko hegaldi odoltsu baten ostean munduratu nintzen eta hegaztiak bere beharra egoki burutu bazuen ere, gustura itzuliko nintzatekeen berarekin batera Parisa (jao izan ez banintz sufrimendurik ez bainukeen ezagutuko). Halaxe, izara artean egin zidan emaginak ongietorria eta odol putzu batean igerian nembilela ireki nituen estreinakoz begiak. Zetozen hilabeteak arin igaro ziren; denbora iraganetik

ihesi bailihoan, gauak eta egunak labur balira bezala.

Lasatarok familia tipia osatzen genuen, dena dela, Idiazabalen oso maitatuak ginen ongia besterik ez baigenekien. Ni nintzen senideetan gazteena eta askok aurkakoa pentsatuko badute ere, aazoak besterik ez Zizkidan ekarri txikiena izateak. Denetara bost senide ginen (hiru arreba eta bi anaia) baina gure arteko haremanak ez ziren goratzeko modukoak. Ama, aitzitik, ogi puska nuen eta etxean lanean aritzeaz gain, kanpoan ere aritzen zen beharrea jo eta su (jostuna baitzen eta ez nolana hiko gainera). Aita, aldiz, okina nuen baina ogia egiten baino jaten denbora gehiago ematen zuen. Bere sabel alde baserriko txoko batean genuen sagardo kupela baino zabalagoa zen, baina bera gustura bizi zen bere kilo eta guzti. Ama askotan haserretzen zitzaion asko jaten zuelako eta errejimena eginen zuela agintzen bazion ere, aita ez zuen sekula emandako hitzik betetzen.

Askotan galdetu diot neure buruari zergatik egokitu zitzaidan neuri familia hura. Izan ere, bizitza honetan zoriontsu izango nintzela bazirudien ere, gauzak ez ziren nik nahi legez atera.



Susperregi
ARTE-GALERIA
ERAKUSKETA KOLEKTIBOA

SAN PEDRO, 1
TEL. 943 - 64 25 56
FAX 943 - 64 71 16
20280 HONDARRIBIA



Eskolan hasi bezain fite jasan behar izan nuen bizitzak emandako lehen jipoia: ama nahiz bi anaien heriotza. Auto istripu batek amaitu zuen haiekin etxerantz zetozela eta harezkeroztik, etxea ez genuen bakerik izan.

Aitak edanari eman zion eta irabazten zituen txanpon apurrak tabernan xahutzen zituen. Nire arrebek berriz, etorkizuna ilun zekusatenez Ameriketara alde egin zuten eta Euskal Herrira ez ziren gehiago itzuli. Nitaz, aitzitik, inor ere ez zen arduratzen eta denboraren poderioz hamazazpi urte banituen ere, bakarrik sentitzen nintzen. Aita eta biok elkarrekin bizi ginen baina aita ez zen ezertaz jabetzen. Zurrutak burua galarazi zion eta arazoetan sartu besterik ez zen egiten. Ama eta anaiak hilda, arrebak urrun eta aita mozkorra; nireak egin zuela iruditzen zitzaidan. Orduan zabaldu nituen begiak lozorrotik; bazen garaia nigan pentsatu eta tajuzko zerbait egiteko. Dirurik ez izanagatik ere, ilusio handiak banituen, ordea, eta halaxe otu zitzaidan burutazio hura: baserria aterpe bihurtzea. Idiazabalen hotelik ez genuen eta nire asmoak nik nahi bezala ateraz gero, gauzak izugarri aldatuko lirarteke (baita nire kontu korrontea ere).



Aitak gaizki jarraitzen zuen, alkoholaren erruz tris-te eta hasarre nabaritzen nuen. Zorrez leporaino zegoen eta hauek kitatu ezinik zebilenez, baserria hipotekatu baharra etorri zitzaion. Geneukan jabetza bakarra ebastera zihoakiguten eta halakorik gertatu baino lehen, baserria nire izenean jartzea erabaki nuen (aitarenean baitzegoen ama hil zenetik). Horretarako ezinbestekoa izan zitzaidan aitaren baimena erdiestea, baina aitak bazekien bion hobebharrez ari nintzela eta sinadura ematerako garaian ez zidan oztoporik ipini. Banketxetik bost milioi pezeta atera eta tabernarekin genuen zorra kitatzea ortu nuen, nahiz eta banketxeari dirutza hori nola itzuli jakin ez. Gauzak bere lekuan jarri nituen, bada, eta lana topatzeko aukera ere etorri zitzaidan behingoagatik. Igelseritzan murgildu nintzen neukan bizilagun eskuzabal bati esker, baina beharra erreza zenik ezin erran. Hamalau orduz lan egiten nuen egunero baina irabaziak ere

araberakoak ziren. Bi urteren buruan bost milioi aurreztu eta banketxearekin bakeak eginak nituen, hura lasaitasuna hartu nuen!

Pixkanaka-pixkanak baserria berritzeko nire asmoa gauzatuz zihoan eta beharrezko nuen diru kopurua eskuratuz nuenean, udaletxera jo nuen nere asmoen berri emateko. Aita berriz, sekula baino hobeto zegoen; edanari muzin egiten zion eta itxura osasuntsuagoa igortzen zuen. Halaxe bada, «Portuberri» baserria «Jauregi» hotolean bihurtzea ahalbidetu nuen eta denbora motzean bezero finko ugariekin egin zen hotela. Aita eta biok generaman hotelaren zuzendaritza ohikoa zen zerbaitek hondamendia ekarri zigun arte. Astelehen gaua zen eta bitxia bazirudien ere, hotela hutsik zegoen bezerorik ez baitzen bertan ostatu hartzen ausartu. Egoeraz baliatu nahirik, aita eta biok afaltzera joan ginen elkarrekin (aspaldian ez baikin

atera afaltzera) eta hotelera itzuli ginenean, mundua bertan behera jausi zitzaigun bai aita eta baita niri ere. Suhiltzaileek sutan zegoen gure hoteltxoa itzaltzen ziharduten jo eta ke, gure itxarope urriak ere suaren antzera uxatzen ziren bitartean. Beranduago jakin ahal izan genuenez, zigarro baten errautsa izan zen sutearen erruduna, baina bost axola horrek.

Negarrez eman genuen gau oso aitak eta biok; atsekabeak jota geundenm kiriok dantzan geneuzkala. Ezer ere ez zitzaigun geratzen: ez dirurik, ez hotelik eta ez bizipozik ere, hura nahigabea! Baina jaungoikoak ez gintuen baztertuta utzi; bazeukan sorpresarik ostenduta lipar hartan ere.

Suteak utzitako hondakinak jasotzen ari ginela, aitak hari bitxi bat topatu latinezko esaldi anitzekin. Gehiago aurkitu nahian, ingurua miatzen hasi ginene eta hura pagotsa: gure baserriaren pean erromatar hiri oso baten hondareak, alajaina! Aditu eta arkeologo ugari etorri zen gurera eta aurkikuntza ikaragarri baten aurrean geundela aitortu ziguten. Handik aurrekoa loteri saria egokitzea baina mila aldiz hobea izan zen. Udaletxeak milioi morderoa eskaini zigun bertan museo eder bat eraikitzearren eta guk, onartu egin genuen, ezbaizrik gabe.

Aldarte guztiak berreskura daitezke, antza.



AINARA ELIZONDO

Bordari Lehiaketa, Hondarribiko onena

AUTO - ESCUELA
ALZAGA

A-1, A-2, B, C, D eta E
KARNETEN TRAMITAZIOA

Uranzu, 37 - Tel. 943 62 16 27 - Fax: 943 33 95 IRUN
Zukoaga, 12 - Tel. 943 64 16 23 - HONDARRIBIA
C/ Fuenterrabia, s/n - Tel. 943 61 72 12 - IRUN

ARDORA

TLF. 943 64. 24. 61
943 64. 41. 55



ARDORA

JATETXEA

Foru kalea
HONDARRIBIA

LEHENGO BIDETIK

EKAITZA:

«Mikol itaunera honi zer erantzun ez zekiela gelditu zen. Ez zen gutxiagorako ere. Itsasoan indargetua zen.»
(«Kresala», Txomin Agirre).

1.-Kaiaren azken muturreraino, artegaz ihesirik badihoakit norabait begirada.
Etsipenez mozkorturik, negar malkotan bustitako arrantzalea sostengatzen duen burdinezko barrara.
Urrunean dakusa olatuen biharamuna;
urrunean itsas lami lizunen balada.
Erruki zakizkio, arren, jauna
goi zeruetan baldin eta jainkoren bat bada.

2.-Eguzkiaren izpi goiztiar lotsatiek errainuen distirez babesturik herria,
badaramate Terranovako itsasertz galdu nahiz hezeetara marineltxo berria.
Eskuak harrizko bailiran, izotzaren gatibu,
bihotza, berriz, taupadez alai;
arraina hesitu eta gartzelarako gai.

3.-Egunak joan, gauak, aldiz, ezustean etorri malurazko kresala ahopean uneoro gozatu.
Familiatz gogoratu.
Atsekabeen erori
zaigu arrantzale gaztea; itsasgizon gajoa.

4.-Ilunaren itzalak ekin zerutiara estaltzean, itsasoaren orro sakona marinelen kezkaigarri.
Ilargia, bitartean, ortzean zelatari txalupak harkaitza jotzean.
Ekaitzaren haserreak murgildu du betiko itsasgizona uren jolas bortitzean,
ez da gehiago biziko.
Soilik, nire bihotzean; ene oroitzapen artean.

MALENA

1.-Oh! Malena,
maitasunaren izena; amodioaren eztena.
Arrosaz duzu musua, hainbatek goratua.
Begiak, aitzitik, zeruko izar bi

eta zure begiradak eztizko argi distira dirudi.
Niretzat nahi zintuzket.
Hain zaitut laket... loreak curiaren pare...
gabe.

2.-Urre koloreko adatsez koroatua zeruetako erreginaren antzera,
Jaungokioaren gurariz lurretatua gizonen artera.
Liluraz apaindurik, marrubizko ezpainez,
ene desioen gozagarri;
Argizari zuriz leundutako azalaz bedeinkatutako mirari.

3.-Negu luzean zu zaitut galbide;
uda epelean ene arimaren jabe.
Udakenean zure fereken gose premiaz,
eta udaberrian, hainbat muxuren eskale.
Nora naramazu, jainkosa, nora naramazu, maite?
Nora joanen naiz bakarrik,
nolatan bizi zu gabe?

LEHENGO BIDETIK

1.-Leihotik landa, mundutik at;
errealitaterantz noa askatasun bideen bila.
Antzutasunak emankor dirauen oihanera;
bakardadeak birjin jarraitzen duen herrira.
Laboraria esku zartatuez diosalaz mintzo,
abadea salbatzailea noiz etorriko ari da.
Zuhaitz gaineko kukuaren kantu xumean
dasta dezaket nire barruan, norabide galduan
barreiatzen ari den miseria.


2.-Haizearen ihesak xurgaturik samín tantak,
iraganaren uztarpean uzurtu zait irria.
Etsipenak abailduta nirekin garraiatuz
nire kabia; nire aberria.
Ilunabar agerikoak dakarkit gauero gogora
Zure lorratz zuri, gorri eta orlegia.
Euskaldunontzat bakarrik nahi zintuzket, laztana,
hauxe duzu benetako egia.

3.-Labaindu zen emeki zure esentzia nigan,
ereindako hazia sendo errotu bailitzan
nire bizitzan, lapa harkaitzari legez.
Baina tamalez, ezin zaitut burutik kendu
beti izanen baitzaitut nigandik gertu
zugana lotzen nauen sentipenaren bitartez.

URRUTIKO INTXAURRAK

«Askok zoriona bilatzen dihardute, beste batzuek txapela bilatzen duten antzera. Soinean daramate, baina ez dira ohartzem». (Nicolaus Lenau).

- 1.-Eternitateaz mintzo zakizkit, bai baitakit, jada, orainaz. Lehenaldiko zama hutsaren idunekoa sama gainean eramanaz.
- 2.-Poeten negu beltzeko grinak marrazten duten fantasia, hostoetako isuri gardenean loratu den gabezia.
- 3.-Zorionaren isla ispiluan garden boterearen gorentasuna bezain lerdin. Gal bedi harrokeria bidean; gauerdiko hilen bizilekuak, gotorlekuak datzan leku berean.
- 4.-Bizipozaren aurpegi poliedrikoak aztoraturik denboraren joana, zoriontasunaren erauntsi guztiahaldunak badarama nire pausoa zugana.
- 5.-Maitasunaren ardatz higikorrean zorabioaren amildegiaz jabeturik,



munduaren txarkeriaz itsuturik, atsekabearekin marmarrean.

- 6.-Ongizatea atzeman gura nuke; xedea ontasun bidez orbando. Gizakia bihurtura barik eraiki, bidegabekeriak bakandu.
- 7.-Noiz zaigu bidea zubi bihurtuko, noiz da itsasoa gozatuko? Noiz zoriona gurera etorriko, noiz mundua bukatuko!

HAITZ ARZAK
Satarka Lehiaketa,
Hondarribiko onena

ARRAUNLARI

JATETXEA - RESTAURANTE

PASEO BUTRON
ETXE ALAI
Telf.: 943 64 15 81
20280 HONDARRIBIA



JAVIER
OPTIKO

DIPLOMADO EN OPTICA Y OPTOMETRIA
MASTER EN OPTOMETRIA CLINICA
LENTES DE CONTACTO

SAN PEDRO, 6
TEL Y FAX 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA

LEHIAKETAK:

Erroxape 99ko ipuin laburren IVgarren lehiaketa / 1999ko Otsailak 26.

«Déjate echar el lazo» Igo Komik lehiaketa / 1999ko Martxoak 1.

Arabako jaien kartel lehiaketa / 1999ko Martxoak 12.

San Prudencio XXXgarren Argazki Lehiaketa / 199ko Martxoak 15.

Logotipo lehiaketa (Laredo) / 1999ko Martxoak 16.

Urretxu-Zumarragako XIIigarren antzerki astearen kartel lehiaketa / 1999ko Martxoak 18.

**OPOSAKETAK**

Peraltako kultur etxearen arduraduna / 1999ko Martxoak 2.

Maineruko liburutegiaren arduraduna / 1999ko Martxoak 8.

DIRULAGUNTZAK

Irungo Historia ikertzeko beka / 1999ko Martxoak 25.

1999ko luzemetraien gidoiak garatzeko beka / 1999ko Apirilak 2.

1999ko «Nicanor Zabaleta» musika beka / 1999ko Maiatzak 14.

Ikerkuntza beka (Gipuzkuako foru aldundia / Kultura eta Euskera saila) / 1999ko Irailak 1.

EKINTZAK

Gazteentzako HIP HOP eta JAZZ kontzertuak Egiako Kultur etxean / 1999ko Otsailatik Maiatza arte.

Kale Nagusia, 7 - Tfna. 943 644 752 - 20280 HONDARRIBIA
E-mail: juvenil.hondarribia@udal.gipuzkoa.net



AURKITU 21 EUSKAL HERRIKO IZENAK

I	B	A	O	Z	G	A	O	H	N	I	A	A
O	G	M	A	I	A	L	E	N	X	A	M	N
G	K	A	G	O	R	Z	I	T	B	E	Ñ	E
A	O	R	R	T	A	A	R	A	I	A	N	N
E	G	A	U	B	Z	I	X	E	M	A	U	U
N	N	A	I	A	I	T	O	R	R	E	R	R
O	I	S	T	E	N	Ñ	B	E	N	Z	T	I
Z	T	I	R	A	S	I	E	R	K	R	Z	S
T	A	I	R	U	O	K	Ñ	O	E	S	I	L
O	R	A	C	D	G	R	A	N	X	D	I	I
G	I	B	E	U	G	U	T	Z	A	B	N	S
Z	T	I	L	A	B	I	T	S	E	I	S	A

L...E
I...I
U...O
A...S
N...A
U...I
A...R
A...R
B...T
I...I
U...Z
A...R
I...E
N...A
G...I
A...A
M...N
A...A
G...E
G...E
E.....2

Estilatu de la Fuente

ABDEFGHIJKLMNOPRSTUXYZ

ZUK BADUZU

NIK ERE BAI,

MUNDU GUZTIK DU,

NOLA BESTELA EZAGUTU?

ABDEFGHIJKLMNOPRSTUXYZ



ABDEFGHIJKLMNOPRSTUXYZ

ABDEFGHIJKLMNOPRSTUXYZ

Bi ama eta bi alaba:
ondo zenbatzen baduzu
ez dira lau, hiru baizik.
Badakizu, esan gabe nik?

Beti ari den arren
hazten eta loditzen,
ez da bere lekutik
sekula ere mugitzen.

20 DESBERDINTASUNAK TOPATU



ZENBAIT TELEFONO INTERESGARRI

Gure Herrian:

Udaletxea: 943 64 43 00
Parrokia: 943 642685
Itsas-Etxea: 943 640059
Arrantzaleen Kofradia: 943 641134
Kasino Zaharra: 943 644704
Hospital Komarkala: 943 614600
Suhiltzaileak: 943 630186
Correos: 943 641204
Euskaltea: 943 641216
Gurutze Gorria: 943 641727
D.Y.A.: 943 640035
Hondartza Kirolegia: 943 647137
Bake Epaitegia: 943 643091
Gazte Informazio Bulegoa: 943 644752
Turismo Bulegoa: 943 645458
Liburutegia: 943 641430
Taxiak: 943 641256
Radio Taxi: 943 633303
Hilerria: 943 642082

Autobusak

Interbus: 943 641302
AUIFSA : 943 633145
(Irun-Hondarribia)
PESA: 902 101210
Turytrans: 943 462360 /
/ 94 4210363
La Baztanesa: 948 580129
(Hondarribia-Elizondo-Iruña)
La Estellesa: 943 470115
(Irun, Donostia, Lizarra,
Logroño)
Bidasotarra: 948 225951
(Irun, Donostia, Iruña)

Trenak:

Eusko Tren: 94 4339500 // 94 3450131
RENFE: 943 616708 // 943 283089
SNCF: 36353535 // 59501919
Irungo Tren Geltokia: 943 616708

Hegazkinak:

Sondikako Aireportua: 94 4869301
Miarritzeko Aireportua: 59438383
Forondako Aireportua: 945 163500
Hondarribiko Aireportua: 943 668500
Noain-eko Aireportua: 948 168700

943 641 134

DENBORAK AURRERA EGITEN DU DENAK BEZALA!

Denbora aurrera doala eta atzean ezin geratu daitekela askotan entzundako esaldi bat da. Topiko bat dela ustez, usteak erdia ustel. Hondarribiko Artxiboan dagoen materialea aztertzen ari ginelarik, oso material aberatsa gainera, hara zer nolako irudi bikaina topatu dugun.

Ikus daiteken bezala, aurreko alean atera genuen Harresilanda kalearen jarraipena da, Portu aldera hurbiltzen ari garelarik oraingoan. Ez dago data zehatzik irudia noizkoa den jakiteko, baina aurrekoa baina zaharragoa dela ziurra da. XIX. mende amaierakoa dela dirudi, oraindik ez bait berebilik ikusten.

Zenbait datu daude aztertzeko modukoak. Artzaia ikusten dugu bere artaldearekin bueltan. Baina txakurrik

ikusten al da? Badirudi txakurrak artzantzara eramatearen ohitura ez dela betikoa, askok horrela dela uste badute ere. Pasatako mendeetan artzaiek mastin-ak edo artzkurak erabiltzen zituzten, baina gehienbat otsoengatik defendatzeko. Txakurrak artaldea gidatzeko erabiltzeko ohitura berriagoa dugu ordea.

Azpimarratzeko modukoa den beste kontzeptu bat harresien egoera da. Bere gaur egungo itxurarekin parekatuz gero apenas ez dela aldatu ohartuko ginateke. Orain egoera txarragoan egongo dela ziurra da, urteek ez baitute barkatzen. Ohartu ere eskuinaldera igotzen den bidea, garai batean oso erabilia zena Hondarribian. 50. hamarkadaren erdialdean desagertu egin zen, eta gaur egun daukan itxura hartu zuen.



ZEIN DA KALE HONEN IZENA?


Azken ale hauetan gehiago ziren pertsonen aurpegiak eta izenak aldizkariaren atal honetan. Hori dela eta, oraingoan aldatzea erabaki dugu, eta irudi zahar bat dakarkizuegu guztioi. Gure herri honen historiaren zati bat da hau, eta gaur egun existitzen den kale bat da.

Hala ere, aurrera egin aurretik aipatu behar dugu urtarriko lehiaketarako epea oraindik zabalik dagoenez, horren irabarlearen izena hurrengoan emango dugula.

Osaileko ale hontako irudia historikoa da. Ezkerrean etxe dotore bat ikus dezakegu, eta eskuinean aldiz Portuko merkatua izan zena garai batean. 1905-1906 bitartean eraikia izan zen, eta bere aurrekontua 17.000 pezeta ingurukoa izan zen.

Datu gehiago eduki nahi baduzue, jakin ezazue bere azalera 206'04 m²-koa zela. Eskatzen dizueguna kalearen izena da. Lehen esan moduan, kale hau gaur egun ere existitzen da eta ezaguna da hiritarrentzat, hala izan beharko litzateke behintzat.

Erantzunak eduki bezain laister, Udal Euskara Azpibatzordera bidali martxoaren 16^a baino lehen, bi personentzako afari bat irabaz dezakezu eta.



JAIZUBIA
Tel.: 943 64 31 94
20280 HONDARRIBIA

SAGARDOTEGIA
JATETXEA

Horra hor goian errota
irina pur pur ihota
ondo jan eta edan paketsu ta alai
hor duzue Beko - Errota.

APIRILAREN 1ETIK 30 ARTE



CAPRICORNIO: Urte batzuk badituzu, bina oraindik ez zara dirua aurrezten hasi. Ze uste duzu, dirua bakarrik parrandak egiteko dela? Noizbait beharko duzu, eta orduan eskatzen hasiko zara. Zure bizitza antolatzen hasi beharko zenuke.



AQUARIUS: Norbaitek negozio bat eskaintzen badizu, kontu eduki, gaur egun urrea delakoa ustetan selenioa eskaintzen du eta jende askok. Erabaki bat hartu aurretik ondo pentsatu, denborarekin damutu egi zaitezke eta.



PISCIS: Eguna goizetik hasten dela esatea komeni da noizean behin. Goizetik esaten denean, 8tan esan nahi da, eta ez eguerdiko hamabitan. Parasito bat zara eta horrela jarraitzea ezinezkoa da. Espabilatu beharrean zaude.



ARIES: Euskara hitzegin beharko zenuke gehiago. Oso errez jotzen duzu erderara, eta gero oso ados egoten zara euskararen aldeko kanpaina guztiekin. Hori oso faltsua da, eta erantzule bakarra zu zara. Euskaraz bizi!



TAURO: Oso indartsu eta konfidantza askorekin zaude azken aldiotan. Zure inguruko gidari bezala ikusten duzu burua, eta denak bezala, horrek alde onak eta txarrak ditu. Onak aprobetxatu eta txarrak alde batera utzi.



GEMINIS: Garai lasaia datoz orain zuretzat. Hala ere komenigarria da lorik ez hartzea, gero noizbait esnatzen zarenean harrapaladan etorriko baita dena. Erme ibili, orain aret egin duzu bezala.



CANCER: Zenbait kasutan hitz asko egiten duzu, eta gero berehala damutu egiten zara. Hitz egin aurretik, dena ongi neurtu, zurekin dagoenari minik ez ematearren. Atsekabe asko sor daitezke horrela jokatu gero.



LEO: Askok jan, lo asko egin, gutxi ikasi eta klasera joan ez. Horrela ezin da jarraitu, eta noten bolwtina etortzea zaplasteko bat baino gehiago jasoko duzu. Jokaera aldaketa bat ezinbestekoa da, bestela inoiz ez dituzu ikasketak amaituko.



VIRGO: Orain arte bezala erretzen jarraitzen baduzu, belarritik kea aterako zaizu bihar edo etzi. Zure aurpegia begiartu al duzu azken aldiotan ispiluan? Duela denbora bat orain baino askoz hobe zeunden. Badakizu zer egin, ez erre inoiz gehiago.



LIBRA: Hilabete onak bizitzen ari zara azken aldiotan, eta jarraipena eduki nahi baduzu, orain bezala jarraitu, oheta joan aurretik Jaungoikoari errezatuz. Horrek asko lagunduko dizu bizitza hontan. Ohitura onak ez dira galdu behar.



ESCORPIO: Bizitza honetan dena ez da futbola. Buruan ez daukazu beste ezer, futbola, futbola eta futbola. Zure ingurukoek nazkatzen ari dira zure nahi horrekin. Kontutan hartu beharko zenuke ere saskibaloia, eskubaloia, igeriketa sinkronizatua... existitzen direla.



SAGITARIO: Etxean ez duzu ezertan laguntzen. Dena uzten diozu amari eta noizbait aspertu egingo da eta orduan ikasiko duzu zer den etxeko lanak egitea. Etxera iristean dena egina ikusteko ohituta duzu, eta noizbait gauzak aldatu egingo dira. Orduan egongo dira komeriak!

JAIOTZAK: ABENDUA



8an: Andrea Zuaznabar Barreto
Gurasoak: Javier eta Virginia

9an: Manuel Elgezabal Villagrán
Gurasoak: Javier eta Lourdes

10ean: Amuitz Sistiaga Elola
Gurasoak: Asier eta Lierni

11an: Lucía Collera Tamargo
Gurasoak: Iñigo eta Susana

16an: Maite Olaziregi Etxebeste
Gurasoak: Lazaro eta M^a Belen

19an: Beñat Amunarriz Virto
Gurasoak: Manuel eta Igone

23an: Carla Silva Rodríguez
Gurasoak: Frederik eta M^a Antonia

23an: Beñat Gonzalo Etxeberria
Gurasoak: Javier eta M^a Soledad

HERIOTZAK: URRIAN



1ean: Braulio Kampandegi Olaziregi, 79 urtekoa
Harresilanda kalea

5ean: Juan Rodríguez Sánchez, 78 urtekoa
Mendelu Auzoa

11an: Juana Albiasu Mindegia, 86 urtekoa
San Gabriel Egoitza

12an: Natividad Herreros Perea, 97 urtekoa
San Gabriel Egoitza

21ean: Nieves Larrarte Zozaya, 79 urtekoa
Minasoroeta kalea

27an: Saturnino Villate Ortega, 88 urtekoa
Mendelu Auzoa

27an: Javier Etxezarreta Landaberea, 83 urtekoa
San Gabriel Egoitza

28an: Francisco Carrera Olaskoaga, 74 urtekoa
Ipparalde kalea

29an: Prudencia Otegi Sarasola, 86 urtekoa
Mugarrieta Baserria, Arkoll

31an: Jose Maria Urtizbera Soroa, 62 urtekoa
Marikiñenea Baserria, Arkoll

31an: Maria Aramendi Iarzal, 89 urtekoa
San Pedro kalea

EZKONTZAK: ABENDUA



9an: Oscar Kampandegi Martínez, Hondarribikoa
eta Ainhoa Iñarra Emazabel, Hondarribikoa

16an: Ramon Emazabel Zabala, Hondarribikoa
eta Elena Etxegoien Moreno, Irungoa

23an: Juan Ignacio Goiburu Urkia, Hondarribikoa
eta M^a Emilia Gómez Otagi, Irungoa

30ean: Emilio Sunsundegi Amunarriz, Hondarribikoa
eta M^a Luz Rodríguez Aramburu, Hondarribikoa

OTXOA

JANARIDENDA

BARAZKI, FRUTA ETA
HORRELAKOETAN
AUKERA HANDIA


San Pedro, 43 - Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA



Kirolean.



Enpresetan.



Jaietan.



Kulturan.



Osasunean.



Aisialdian.

**KUTXAREN
IRABAZIAK NONAHI
DIRA AGERI.**